



▶ **2020ko abenduaren 2 eta 3an · 2 y 3 de diciembre 2020**

# ARTEAZ IDATZI ESCRIBIR DE ARTE

- ▶ **Idazki akademikoak, arte-kritika eta artea diren testuak**
- ▶ **Escritos académicos, crítica de arte y textos que son arte**

**A**rtea idaztea (zertaz, zertarako, zeren aurka, zergatik, zeren inguruan) jardueraren liluragarria da, eta, beharbada, ikusteko arteen hezkuntza programetan ez zaio behar duen lekua ematen; beraz, uste dugu gaur egun arreta berezia behar duela.

Alde batetik, idazkera horrek nolabaiteko zehaztasuna eskatzen du; izan ere, arte ikasleak hitzaren bidez egokitu behar du bere ikerketa esparru akademikoan, eta, horretarako, ezagutza, gaitasun eta kontzeptu tresna oso zehatzak behar ditu.

Beste alde batetik, arteari buruz idazteak filosofia zein kritika ukitzen ditu, kazetaritza eta fikzioa, eta, horietan guztietan, artistak presentzia aktiboa izan dezake edo izan behar du.

Jardunaldien helburua da ezaugarri horiek dituen jardueraren ezartzea Fakultatekoen artean, graduaren azken ikasturteei, masterreko ikasleei eta doktoregoko ikasleei begira.

Jardunaldi hauek "Ikerketa Arte Garaikidean" Doktorego Programaren Berariazko Jarduera Espezifikoen barnean kokatzen dira.

**E**scribir (de, para, contra, por, sobre) arte es una actividad apasionante que quizá no se atienda convenientemente en los programas educativos de las artes visuales, por lo que entendemos que merece una atención especial a día de hoy.

De una parte, esta escritura requiere cierta especificidad ya que el estudiante de arte se ve forzado a encajar su investigación en el ámbito académico a través de la palabra, algo que exige una serie de conocimientos, habilidades y herramientas conceptuales muy precisas.

De otra parte, la escritura sobre el arte atañe tanto a la filosofía como a la crítica, al periodismo como a la ficción, y en todas ellas, el artista puede o debe tener una presencia activa.

La intención de estas jornadas es asentar una actividad de estas características con destino especial a los cursos finales de grado, al alumnado de máster y doctorado.

Estas jornadas forman parte de las Actividades Formativas Específicas del Programa de Doctorado "Investigación en Arte Contemporáneo".

10:00

### ► PRESENTACIÓN

10:15-11:30

### ► TXT-LAB

#### Prácticas entre Arte y Texto

Presentación del equipo de trabajo y el funcionamiento de TXT-Lab, laboratorio de escritura que surge a raíz de las jornadas Escribir de Arte de 2016 y que actualmente trabaja en su primera publicación.

TXT-Lab es un campo de pruebas para las relaciones que se establecen entre Arte y Texto. Nuestro trabajo se despliega desde tres líneas conceptuales; la escritura práctica del Arte, la idea de Laboratorio como espacio de experimentación y una perspectiva teórica amplia que permite múltiples posibilidades de encuentro.

12:00-14:00

### ► LA CANCIÓN DESDE LA NADA

#### José Javier Pérez Corcobado

«Cómo descubrí que era compositor de canciones». Construcción de una canción desde la nada. Breve discusión sobre «la nada» como página en blanco para iniciar la creación; caben opiniones sobre el caos, el vacío en la física cuántica. Bosón de Higgs. Breve exposición y opiniones sobre el concepto de canción tradicional (música y armonía) y vanguardista (ruido y disonancia). Evolución. Conexión e interacción entre asistentes y ponente. Originalidad, no copia, sí inspiración.

José Javier Pérez Corcobado nació en Fráncfort en 1963. Actualmente, reside en Errigoiti (Bizkaia). Como compositor e intérprete musical, ha grabado más de 300 canciones y publicado 19 elepés oficiales desde 1985 hasta hoy, y ha realizado cientos de conciertos internacionales. Como escritor, ha publicado varios poemarios y una novela y ha realizado multitud de eventos literarios.

15:00-17:00

### ► TALLER TXT-LAB

Actividad práctica durante la que se propondrá un ejercicio de escritura distribuido en tres bloques. El objetivo de cada bloque es el de escribir un texto a modo de preámbulo, nudo y desenlace respectivamente, a partir de una acción que tendrá lugar en el momento. Tanto los textos realizados por lxs asistentes como el registro de la acción se publicarán en el blog de TXT-Lab para su posterior difusión.

10:00-11:30

### ► CUANDO EL TEXTO TOMA FORMA

#### Nerea Lekuona

Cuando representamos una idea con texto estamos escribiendo. El arte de escribir, la escritura en el arte, la palabra como vehículo, el texto como herramienta, palabras y formas... En esta presentación se mostrarán diferentes trabajos en los que el texto forma parte de la propia pieza. Instalaciones formadas por ideas representadas a partir de texto.

El trabajo de Nerea Lekuona (Vitoria-Gasteiz, 1976) es siempre un ejercicio de adaptación al medio, de intuición y perspicacia. En sus propuestas se cruza el tratamiento de las imágenes, la escritura, la acción, la mediación y el análisis de la circunstancia actual.

12:00-14:00

### ► ESCRIBIR EN EL REALISMO COMPLEJO

#### Agustín Fernández Mallo

Si el objetivo de las artes y de la literatura es narrar el mundo de nuestras experiencias, qué significa, cómo es posible reformular y superar en nuestras obras, la contradicción de vivir en una sociedad fragmentada y al mismo tiempo hiperconectada.

Agustín Fernández Mallo, su última novela es Trilogía de la guerra (Seix Barral), Premio Biblioteca Breve. Su último ensayo, Teoría general de la basura (Galaxia Gutenberg), Premio Cálamo Extraordinario. Es autor del Proyecto Nocilla (Alfaguara), trilogía galardonada con diferentes premios. Su libro, Postpoesía, hacia un nuevo paradigma, fue finalista del Premio Anagrama de Ensayo.

► **LUGAR:** Salón de Grados. Edificio principal. Facultad de BBAA.

emeri ta zabal zazu  
  
Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

**MDe**  
Master eta Doktorego Eskola  
Escuela de Máster y Doctorado  
Master and Doctoral School

**ak  
me  
ka**  
Artea  
Kultura  
Media  
(1T1278-19)

**TXT Lab**  
txtlab.art.blog

## ABENDUAK 2 ASTEAZKENA

10:00

### ► AURKEZPENA

10:15 - 11:30

### ► TXT-LAB

#### Artearen eta Testuaren arteko praktikak

Lantaldearen eta TXT-Laben funtzionamenduaren aurkezpena. TXT-Lab idazketa laborategi bat da, 2016ko Arteaz Idatzi jardunaldien harira sortu zen, eta, gaur egun, lehen argitalpena lantzen ari da.

TXT-Lab artearen eta testuaren artean izaten diren harremanetarako proba ingurune bat da. Gure lana hiru ildo kontzeptualetatik abiatzen da: artearen idazketa praktikoa; laborategia esperimentatzeko espazio bat delako ideia; eta ikuspegi teoriko zabal bat, topaketarako askotariko aukerak ahalbidetzen dituena.

12:00-14:00

### ► ABESTIA EZEREZETIK

#### José Javier Pérez Corcobado

«Nola jakin nuen abesti konpositorea nintzela» Abesti bat ezerezetik eraikitzea. «Ezereza» sortzen hasteko orri zuri bat delako ideiare buruzko eztabaida laburra; fisika kuantikoko kaosari, hutsari buruzko iritziak. Higgs bosoiak. Abesti tradizionalaren (musika eta harmonia) eta abangoardistaren (zarata eta disonantzia) kontzeptuari buruzko azalpen labur bat eta iritziak. Eboluzioa. Bertaratu eta hizlariaren arteko konexioa eta interakzioa. Originaltasuna; kopia ez, inspirazioa bai.

José Javier Pérez Corcobado Frankfurten jaio zen, 1963an. Gaur egun, Bizkaian bizi da, Errigoitin. Musika konpositore eta interpretatzaile gisa, 1985etik hona, 300 abesti baino gehiago grabatu, eta 19 LP argitaratu ditu, eta ehunka kontzertu eman ditu nazioartean. Idazle gisa, zenbait poema liburu eta eleberrri bat argitaratu ditu, eta ekitaldi literario ugari egin ditu.

15:00-17:00

### ► LANTEGIA TXT-LABEKIN

Jarduera praktikoa; idazteko ariketa bat proposatuko da, hiru bloketan banatuta. Bloke bakoitzean testu bat idatzi beharko da, une horretan gertatuko den ekintza batetik abiatuta: sarrera, korapiloa eta amaiera. Bertaratuak ekintzaren erregistro gisa egingo dituzten testuak TXT-Laben blogean argitaratuko dira eta, ondoren, hedatu egingo dira.

## ABENDUAK 3 OSTEGUNA

10:00-11:30

### ► TESTUAK FORMA HARTZEN DUENEAN

#### Nerea Lekuona

Ideia bat testuaren bitartez irudikatzen dugunean idazten ari gara. Idaztearen artea, idazkera artean, hitza eramaile gisa, testua tresna gisa, hitzak eta formak... Aurkezpen honetan testua artelanaren beraren parte diren hainbat lan ezagutzera emango dira. Testutik abiatutako ideia irudikatuek osaturiko instalazioak.

Nerea Lekuonaren lana (Vitoria-Gasteiz, 1976) ingurunera egokitzeo ariketa da beti, intuiziozkoa eta zorrotza. Bere proposamenetan irudien tratamendua, idazkera, ekintza, bitartekaritza eta gaur egungo egoeraren azterketa nahasten dira.

12:00-14:00

### ► ERREALISMO KONPLEXUAN IDAZTEA

#### Agustín Fernández Mallo

Arteen eta literaturaren helburua da gure esperientzien mundua kontatzea, zer esan nahi duen, nola den posible birformulatzea eta gainditzea gure obretan, gizarte zatitu eta, aldi berean, hiperkonektatu batean bizitzearen kontraesana.

Agustín Fernández Mallo. Bere azken eleberrria Trilogía de la guerra (Seix Barral) da, eta Biblioteca Breve saria jaso du. Bere azken saiakera Teoría general de la basura (Galaxia Gutenberg) da, eta aparteko Cálamo saria jaso du. Proyecto Nocilla (Alfaguara) idatzi du, zenbait sari jaso dituen trilogia. Postpoesia, hacia un nuevo paradigma liburua, bestalde, finalista izan zen saiakeraren Anagrama sarian.

### ► LUGAR: Gradu Aretoa. Eraikin nagusia. Arte Ederren Fakultatea.



# MDe

Master eta Doktorego Eskola  
Escuela de Máster y Doctorado  
Master and Doctoral School



ak  
me  
ka  
Artea  
Kultura  
Media  
(IT1278-19)

TXT Lab  
txtlab.art.blog